

NAFARROAKO EUSKARA 2002AN. GAI BERARI BURUZ, BERRIZ ERE?

2000. urtearen hasieran, aldizkari honen 229. zenbakian, Euskara Nafarroan gaur izenburupean idatzi nuen, non euskararen egoeraren zenbait jakingarri eman nituen, legeria, irakas-kuntza, administrazio eta zerbitzu publikoez. Foru Erkidegoko agintarien eta Nafarroako elizaren jarrera ezagutarazten saiatu nintzen, neurri ttiki batean, bederen. Jarrera ez eredugarria, prezeski. Eta, zer? Gauza bera errepikatzeko asmotan ote nabil gaurko honetan? Bi urte denbora laburra dela erraten ahal dugu, gizartearen bilakaeran. Hala ere, Karmel Aldizkariko arduradunek gai horri bertze begirada bat emateko eskatu didate, eta nik eskaria onartu. Horrek zera erran nahi du, berritasunik badela, zer kontaturik izan daitekeela, nahiz eta lehen erranak gogoratzea ere ez den kaltegarri izaten. Gaurko Euskal Herriko jendarte eta politika eraldaketa biziak, errealitate guztiak astintzen ditu, euskara eta bere ingurunea barne. Gobernuaren erasoaldia.

2000ko lehen seihilekoan, Nafarroa osorako euskararen ofizialtasuna eskatzeko, ia 50.000 sinadura bildu ziren, zenbait elkartek osatzen duten Oinarriak taldearen ekimenaz. Gogoratu, herrialde honetan ipar-mendebaldeko eremuan soilik dela ofiziala euskara. Gainerakoa, berriz, bitan bereizten da: mistoa deitutako eremua, Iruñeak, Nafarroako erdialdeko zati batek eta ipar-ekialdeak osatzen dutena, non elebitasunerako aukera

batzuk onartzen diren. Erdialdeko bertze zatiari eta Erriberaldeari ez-euskaldun izena eman zioten, duela hamabortz urte Gobernuak onartutako Euskararen Legean.

Aipatutako lurralde osorako ofizialtasun eskariak Gobernuaren erabateko gutxiespena jaso zuen, eta, argudio gisa, bera sostengatzen duen UPN alderdi politikoak sinadura horiek baino boto gehiago zituela erran zuen. Hain zuzen, orduantxe ekin zion euskararen kontrako jazarpen bereziari, Frankoren diktaduraz geroztik ezagutu dugun gogorrena, zalantzarik gabe, eta inoiz gertatuko zela bururatu ere ez zitzaiguna. Hori ikusirik, ofizialtasunaren aldeko kanpainak berak aurkako fruituak sorrarazi zituela erran zuenik ere izan zen. Hain harrituta gelditu ginen denok! Eta harrituta jarraitzen dugu, neurri batean, erasoaldia indartzen eta zabal-tzen doalako.

Zehaztasun batzuk

Hainbertze denbora ez dela, gipuzkoan bizi den nafar batek zera erran zidan, Nafarroan gai honen inguruan gertatzen ari zenaz informazio gutxi zeukatela. Eta komunikabideen irakurle nahiz entzule aspergabeetako da. Horregatik hainbat xehetasun agertuko ditut, Gobernua egiten ari denaz.

1. 2000ko abenduan lehen Foru Dekretu bat argitara eman, eta bereala ezartzen hasi zen. Ereku mistoko errotulazioetatik euskara kendu eta gaztelania hutsezko bihurtzeko erabakia 2001eko urtarrilean irakurri genuen: errepide, karrika, eta erakunde publikoetako etxe barne eta kanpoko izen, publizitate, iragarki eta argibideak. Hau eremu mistoan. Iruñea eremu horretan dagoenez, ordea, praktikan administrazio osorako derri-gortzen du, zerbitzu nagusi guztiak han baitaude kokatuak. Nahitaez euskara jakitea, itzultzaile eta irakasleei bakarrik dago. Adierazgarria izan zen, lehenik ele bizko izena kendu eta gaztelania soilekoa ezarri, euskara laguntzeko den Hizkuntza Departamentuan bete zutela.

2. Kanpoko hizkuntzek balorazio haundiagoa. Administrazio lanpostuetarako merezimendu baremo guztietan, frantsesa, ingelesa eta alemaniera jakiteari %5 emanen zaio. Europako hizkuntzak izatea omen da erabakiaren arrazoia. Euskara, ordea, soilik "bidezkoa den kasuetan" baloratuko da administrazioan. Administrazio barneko lekualdatze lehiaketetan edo lanpostu betetzeko deialdietan bi puntu emanen dira aipatutako kanpoko hiru hizkuntzak ezagutzeagatik, eta, 2,20 puntu euskara jakiteagatik. Lehen 4,50eko puntuazioa ematen zitzaion. Gisa horretara bertze hainbat kasutan.

3. Euskarazko lanpostutik erdaldunetara ezin igaro.

Euskaraz betetzen diren lanposturik hartuz gero, D ereduko irakaskuntza, edo Osasunbideko euskara jakin beharreko mediku lanpostua, errate baterako, erdarazko edo euskara beharrezko ez den lanpostua bereganatzeko eskubidea galtzen du.

4. Osasunbidean euskara jakinbeharreko lanpostuak gutxitu.

Eskualde bakoitzean zehaztua dago osasungintzan ariko diren mediku, erizain eta administrari euskaldunen kopurua. Orain kopuru hori murriztu egin da, baina hirizpide egokirik gabe. Berdin geldi daiteke mediku erdaldunarekin % 40 edo % 90 biztanle euskaldun dituen.

5. Unibertsitate Publikoan euskaraz ez da irakatsiko, Unibertsitatea sortu aitzinez geroztik egiten den irakasletza izan ezik, eta hautazko gairen bat. Ezagunak dira, euskaraz ikasteko eskubidea aldarrikatzeagatik ikasleak hondarraldian jasaten ari diren erantzun gogorrak. Adibidea, egun batez 77 atxilotu eta komisarian hamabi ordu edukitzea, Errektoretzak berak aginduta.

6. Euskarazko lanentzako eta euskara edo bere ingurunea lantzen duten erakundeei dirulaguntza neurri batean edo erabat moztu: Egungariari, Euskaltzaindiari, herri aldizkariari, etabar.

Erantzunak

Gobernuari protesta agertzeko 2000ko abenduan eta 2001eko otsailean manifestaldi jendetsuak egin ziren Iruñean. Irakasleen elkarretaratzea ere bai, 2001eko maiatzean. Lehenengo dekretutik hasita, aplikazio-agindu guztien ondoren berehala helegiteak aurkeztu dituzte Iruñeko Auzitegian: 86 Udal eta 5 Mankomunitatek, UGT ez bertze sindikatu guztiek, alderdi politiko batzuek, eta hainbat elkartek (Oinarriak, Sortzen, AEK, IKA, Kontseiluko Behatokia, Euskara Kultur Elkargoa, Administrazioan Euskaraz Taldea). Eskualdeka ere antolatu dira elkarretaratze eta manifestuak. Hauek, dena den, ez dute Gobernuaren erauntsia geldiarazi. Egia da auzitegien erabakiak ez dire oraindik gauzatu.

Erasotzaileen lankideak

Jazarraldiak inolako lotsarik gabe jarraitzen du, eta horretan baditu Gobernuak laguntzaileak, bere aldeko Diario de Navarra, batez ere. Ez bera bezain erasotzailerik ez delako, baizik eta bertan argitaratu eta gehien saltzen den egunkaria delako. Del Burgo, Aurelio Arteta, Victor Manuel Arbeloa eta bertze batzuk aspalditik ari dira euskararen izaera eta balioa iluntzen, zikintzen, nahasten. Komunikabideei begiraturuz gero, zerbait jabetzen ahal bagara ere, Joan Mari Torrealdaik 2000ko martxo-ekaineko Jakin aldizkarian bildu digun testu sorta izugarrizko altxorra da idazle horiek egina argitzeko.

Eta elizak, zer dio?

Apez talde eta laiko batzuk kenduta, isiltasuna izan da Nafarroako elizaren jarrera, denbora luzean. Eskandaluzko isiltasuna, norbatzuentzat behinik behin. Azken hilabeteetan, ordea, nork eta artzapezpikuak idatzi eta errandakoek larritu eta biziki mindu gaituzte. Ez du, ba, Nafarroan euskararekiko jazarpenik ez dela erran? Isiltasunez lehen, eta mintzatuz eta ida-

tziz orain, elizako goikarguetan dabiltzanak ez dira gaiaz eta egoeraz behar bezala arduratu. Apez talde batek eta bertze jende batzuk erantzun publikoa eman dute. Ez, ordea, behar-ko lukeen hainbertzekoa, Gobernuaren jokaldiarekin gertatzen den bezala. Zergatik da hain epela, hain ezegokia Elizaren jarrrera? Galdera honek gaurko gogoeta osoaren neurriko lekua behar-ko luke, egoki samar erantzutekotan. Gure salakuntzak direla eta, eliz arduradunak elizaren lehengo eta gaurko jokae-ra defenditzen ari dira egunkarietan, egun hauetan. Azterketa sakon samarra egitea mereziko luke.

Pello Apezetxea